

## KONTRATUGILEAREN PROFILA. ADMINISTRAZIO-KONTRATUAK

Ongi etorri Kontratugilearen Profilerara. Atal honetan Zarathamoko Udalak egindako kontratazio publikoei buruzko informaziorik zabalena eskuratu ahal izango duzu.

### INDARREKO LEGEDIA:

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeko testu bategina onesten duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua; 53. artikulua:

Kontratuen jarduerari buruzko informaziorako gardentasuna eta sarbide publikoa bermatze aldera, eta Lege honek edo berau garatzen duten arau autonomikoek eskatzen duten kasuetan edo borondatez hala erabakitzen denean beste publizitate-bitarteko batzuk erabili ahalko direlarik, kontratazio-organoei internet bidez hedatuko dute kontratugilearen profila.

Profil honetan kontratazio-organoen kontratu-jarduerari buruzko informazio eta datuak jaso ahalko dira, besteak beste, 141. artikuluan aurreikusitako aurretiazko informazio-iragarkiak, lizitazio irekiak edo martxan daudenak eta horiei buruzko dokumentazioa, kontratazio programatuak, adjudikatutako kontratuak, prozedura indargabetuak eta beste edozein informazio erabilgarri orokor, esate baterako, kontratazio-organoarekin harremanetan jartzeko erabil daitezkeen komunikabideak eta baliabideak. Edonola ere, kontratuen adjudikazioa kontratugilearen profilean argitaratu beharko da.

### KONTRATATZEKO BETEKIZUNAK:

1. Pertsona natural edo juridikoak izatea, espainiar nahiz atzerritarrak, jarduteko gaitasun osoa dutenak.
  - o Pertsona juridikoek beren helburu, xede edo jarduera-eremuarekin bat datozen prestazioen kontratuetan jarduteko gaitasuna izango dute, beren estatutu eta fundazio-arauen arabera.
  - o Ondasunen erkidegoek EZ daukate administrazioarekin kontratatzekeko gaitasunik.
2. Ez edukitzea kontratatzekeko debekurik.
3. Kontratu bakoitzerako eskatutako kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta tekniko edo profesionala egiaztatzea edo, legeak hala eskatzen duenean, indarreko enpresa-sailkapena ziurtatzea.
4. Kontratu honen xede den jarduera edo prestazioa egiteko eska daitekeen enpresa-gaitasuna edo gaitasun profesionala.
5. Enpresaburuen elkarteak: Kontratua betetzeko eratzen diren enpresaburuen aldi baterako elkarteek ere kontratatu ahalko dute, eta ez da beharrezkoa izango elkarte horiek eskritura publikoan formalizatzea, harik eta kontratua haiei esleitzen zaien arte.

### DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA:

1. Aurkeztu beharreko agiriak honakoak izan daitezke: jatorrizkoak, kopia egiaztatuak edo Kontratazio Zuzendaritzako udal-bulegoek konpultsatutako kopiak.

2. Errekurtsoak jartzeko epeak igaro eta halakorik aurkeztu ez bada, dokumentazioa interesdunen esku egongo da. Hala ere, adjudikaziotik hiru hilabeteko epea igaro denean, Administrazioak lizitatzailerik emandako dokumentazioa suntsitzeko xedatu ahalko du, beraiek agiriok jaso ez dituztenean.

## EGIAZTAPENA ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

Kontratu bakoitzeko baldintza-agirietan eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko da. Orokorrean, eta dokumentazio osagarriari kalterik eragin gabe, hala badagokio, honakoa izango da:

A gutun-azala: Dokumentazio administratiboa:

1. Gutun-azal honetan sartutako agiri guztien zerrenda zenbakitua. (\*)
2. Pertsona naturalaren kasuan: NANA edo pasaporteak. (\*)
3. Pertsona juridikoaren kasuan: (\*)
  - o Eraketaren eskritura edo agiria, estatutuak edo fundazio-egintza, dagokion Erregistro Publikoan behar bezala inskribatua.
4. Eskatutako enpresa-gaitasuna egiaztatzen duen dokumentazioa, hala badagokio. (\*)
5. Proposamena sinatzen duenaren alde administrazioarekin kontratatzeke ahalmena egiaztatzen duen eskritura edo agiria. (\*)
6. Kontratatzeke debekurik ez duela dioten aitortpena. Aitortpen horretan zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela adierazi beharko da (baldintza-agiriaren ereduaren arabera). (\*)
7. Kaudimen tekniko edo profesionala (baldintza-agiriaren ereduaren arabera), eskatutako agiri eta bitartekoan bidez behar bezala egiaztatua.
8. Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa (baldintza-agiriaren ereduaren arabera), eskatutako agiri eta bitartekoan bidez behar bezala egiaztatua.
9. Indarreko enpresa-sailkapenaren ziurtagiria, halakorik eskatzen bada.
10. Udal-diruzaintzan behin-behineko bermea eratu izanaren ziurtagiria, halakorik eskatu bada.
11. Hala badagokio, ABEEen eratu izanaren konpromiso-adierazpena (baldintza-agiriaren ereduaren arabera).
12. Hala badagokio, zenbat langile minusbaliotasundun dauden adierazten duen ziurtagiria, kopurua plantilla osoko % 2tik beherakoa izan beharko delarik.

(\*): Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistro Ofizialean edo Estatuko Lizitatzailerik eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean izena emanda egonez gero ez da aipatu dokumentazioa aurkeztu beharko, honakoak aurkeztuz gero:

- Dagokion erregistroan izena emanda egotearen indarreko ziurtagiria.
- Ziurtagirian islatutako datu eta inguruabarren baliozkotasun eta indarraldiari buruzko zinpeko aitortpena (baldintza-agiriaren arabera).

PROZEDURA IREKI EDO MUGATUAREN kasuan:

B gutun-azala: Formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideei buruzko dokumentazioa

Lizitatzailleek dossier bat aurkeztu beharko dute, orriak behar bezala zenbatuta. Aurkibidean zenbakituta agertu beharko dira formula bidez automatikoki kuantifikatu ezin diren eta eskaintzak era berezian ebaluatzeko balio duten irizpideei buruzko alderdiak.

C gutun-azala: Formula bidez kuantifikatu daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa

1. Eskaintza ekonomikoa: Proposamen bakarra edukiko du, makinaz idatzita eta lizitatzailleak edo ordezkatzan duen pertsonak sinatuta, eta administrazio-klausula berezien baldintza-agiriko I. eranskinean azaltzen den ereduaren arabera idatzita.
  - o Eskaintza ekonomikoan partida independentean azalduko da jasanarazi beharko den BEZa.
  - o Hala aurreikusten bada, B gutun-azal honetan sartuko dira proposamen ekonomikoaren ereduari dagozkion eranskinak.
  - o Ez dira onartuko ezaugarri hauek dituzte proposamenak:
    - Kontraesanak, hitzak faltan, akatsak edo zirriborroak dituztenak, Administrazioak proposamena kontuan hartzeko beharrezkotzat jotzen duena argi ulertu ezin bada.
    - Aztertu eta onartutako dokumentazioarekin bat ez datozenak.
    - Gehieneko lizitazio-oinarria edo aurrekontua gainditzen dutenak.
    - Proposamenaren zenbatekoan akats nabarmena ageri dutenak.
    - Baldintza-agiriaren I. eranskinean ezarritako proposamen-eredua nabarmen aldatzen dutenak.
    - Lizitatzailleak onartuta, eskaintza bideraezin egiten duten akats edo funsgabetasunak dituztenak.
  - o Letratu eta zenbakitan adierazitako eskaintzaren artean desadostasunik balego, letratu azalduko kopuruak izango du lehenetsia, dokumentazioaren azterketaren irizpide arrazionalak erabilita Kontratazio Mahaiak besterik ezartzen ez badu.
  - o Lizitatzaille bakoitzak ezin izango du proposamen ekonomiko bat baino gehiago aurkeztu. Baldintza-agirian baimentzen bada soilik jaso ahalko dira irtenbide-aldaerak, eta, ondorioz, eskaintza ekonomikoen aldaerak.
2. Baldintza-agiri honen Karatulan zerrendatutako dokumentuak, hala badagokio, formulen bitartez kuantifikatu daitezkeen irizpideak baloratzeko beharrezkoak direnak.

PROZEDURA NEGOZIATUAREN kasuan:

B gutun-azala: Proposamen ekonomikoa

C gutun-azala: Adjudikazio-irizpideei buruzko dokumentazio teknikoa

Plataforma de Contratación del Estado - Windows Internet Explorer

http://contrataciondelestado.es/wps/portal/plataforma

GOBIERNO DE ESPAÑA MINISTERIO DE ECONOMÍA Y HACIENDA

DIRECCIÓN GENERAL DEL PATRIMONIO DEL ESTADO  
 JUNTA CONSULTIVA DE CONTRATACIÓN ADMINISTRATIVA

Bienvenidos | Ongi Etorri | Benvinguts | Benvidos | Welcome | Bienvenu

Inicio Licitaciones Perfil Contratante

**Información de Utilidad**

- Bienvenida a la plataforma
- Normativa
- Enlaces de interés
- CODICE
- Acceso a la plataforma
- Interacción Sistémica (B2B)
- Preguntas frecuentes

**Noticias**

- Publicación especificaciones CODICE 2.0 [mayo 07, 2010]
- Resolución de 3 de marzo de 2010, de la Dirección General del Patrimonio del Estado, por la que se publica la Recomendación de la Junta Consultiva de Contratación Administrativa sobre el envío de anuncios a la Comisión Europea [marzo 08, 2010]
- Anteproyecto de Ley de Modificación de las Leves 30/2007 y 31/2007 [enero 13, 2010]
- Nuevos umbrales para contratos sujetos a regulación armonizada [diciembre 21, 2009]
- Publicación de CODICE 1.06 [julio 09, 2009]

**Licitaciones Abiertas**

Expediente: P.A.3/10 F.Última Actualización: 28-05-2010 13:15  
**Título del Contrato** CONTRATACION DEL SUMINISTRO DE GASOLEO A PARA EL AREA DE ATENCION ESPECIALIZADA DE CEUTA  
**Categoría** Gasoil.  
 F. Fin de presentación: 09-07-2010 14:00  
 Órgano de Contratación: Gerencia de Atención Sanitaria del Instituto Nacional de Gestión Sanitaria en Ceuta  
 Importe: 880.000,00

Expediente: 89 F.Última Actualización: 28-05-2010 13:09  
**Título del Contrato** Redacción del proyecto constructivo y ejecución de la obra "Acceso en ancho UIC a la terminal de contenedores del muelle Principe de España".  
**Categoría** Trabajos de construcción ferroviaria.  
 F. Fin de presentación: 12-07-2010 12:00  
 Órgano de Contratación: Presidencia del Consejo de Administración de la Autoridad Portuaria de Barcelona (PORT DE BARCELONA)  
 Importe: 5.472.652,50

Expediente: 209152010004900 F.Última Actualización: 28-05-2010 12:59  
**Título del Contrato** Adquisición de carretillas elevadoras  
**Categoría** Equipos de transporte y productos auxiliares.  
 F. Fin de presentación: 06-07-2010 12:00  
 Órgano de Contratación: Dirección de Sistemas de Armas, del Mando de Apoyo Logístico del Ejército de Tierra

**Buscador**

**Iniciar sesión**

**Contáctenos**  
 vie, 28 may 2010 13:22:19  
 User ID:   
 Contraseña:

**Empresas**

Publicaciones realizadas:

Anuncios Previos 14  
 Anuncios de Licitación 121

http://contrataciondelestado.es/wps/portal/plataforma

Inicio Maria Isabel... G:\Alcaldia... Sesión de B... Gestión Ano... Documento... Ayuntamiento... Plataform... ES << 13:22

Plataforma de Contratación del Estado - Windows Internet Explorer

http://contrataciondelestado.es/wps/portal/!ut/p/c1/04\_SB8K8xLLM9M5SzPy8xBz9CP0os3gTV39nZzcPlwMDV19JyMPC3dL...

GOBIERNO DE ESPAÑA MINISTERIO DE ECONOMÍA Y HACIENDA

DIRECCIÓN GENERAL DEL PATRIMONIO DEL ESTADO  
 JUNTA CONSULTIVA DE CONTRATACIÓN ADMINISTRATIVA

Bienvenidos | Ongi Etorri | Benvinguts | Benvidos | Welcome | Bienvenu

Inicio Licitaciones Perfil Contratante

Búsqueda Detalle

**Búsqueda de licitaciones**

Expediente

Tipo Administración

Nombre Administración

Nombre O. Contratación.

Procedimiento

Sistema de Contratación

Tipo de Contrato

Subtipo

Importe (sin Impuestos) entre  y

Tipo de Anuncio

Fecha publicación entre  y

Publicación BOE entre  y

Publicación DOUE entre  y

Expediente	Tipo de Contrato	Estado	Importe	Fechas	Órgano de Contrat
<p>Inicio   Aviso Legal   Guía de Navegación   RSS</p>					

Listo

Inicio Maria Isabel... G:\Alcaldia... Sesión de B... Gestión Ano... Documento... Ayuntamiento... Plataform... ES << 13:23